

Euskaraz idatziriko Asteteren dotrina bat

Orreaga IBARRA MURILLO
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Resumen: Se edita y analiza en este artículo una doctrina del Padre Astete encontrada en un caserío de Leitza. Desconocemos quién es su autor. Son varias las doctrinas que circularon por estos pueblos en el siglo XIX, todas adaptadas al euskera de los distintos dialectos. Por medio de las características analizadas, podemos decir que presenta rasgos del euskera de Baztan. Con toda probabilidad, la trajo una monja de este caserío que procedía de allí. Aunque una doctrina no reviste mucha originalidad, hay rasgos que merecen ser analizados desde el punto de vista dialectológico.

Palabras clave: doctrina; dialecto vasco; texto antiguo; dialecto de Baztan.

Abstract: This article publishes and analyses a doctrine of Astete, found in a rural house in Leitza (Navarre). The author is unknown. Several doctrines circulated in these villages during the 19th century and they were all adapted to the different Basque dialects. Thanks to the analysis of its characteristics, we can claim that it presents some common features of the Baztan dialect. In all likelihood, it was brought by a nun from this rural house born there. Although it may not be very original, some features are worth being studied in greater depth from the dialectological point of view.

Keywords: doctrine; Basque dialect; old text; Baztan dialect.

Laburpena. Asteteren dotrina bat, Leitzaoko baserri batean aurkiturikoa, argitaratu eta aztertzen dugu artikulu honetan. Ez dakigu nor den bere autorea, izan ere anitz dira garai honetan idatzi ziren dotrinak, bakoitza tokian tokiko euskarari egokituak. Azterturiko ezaugarrien bidez, Baztango euskarari hurbiltzen zaizkio. Ziurrenik, Baztanen ibili zen baserri honetako monja batek ekarri zuen, jabeek diotenez. Dotrina batek interes handirik ez badu ere, badira aztertzea merezi duten ezaugarriak ikuspuntu dialektologitiko.

Hitz gakoak: dotrina; baztanera; euskalki; testu zaharrak.

* Lan hau Ministerioko FF12012-33190 «Núcleos innovadores en los dialectos vascos» izena duen proiektuaren babesarekin burutu da.

1. Sarrera

Dotrina hau Leitzako *Gorritzun* baserriko sabaiaioan (Gorritzaran auzoan) agertu zen, kutxa zahar batean, eta sinatu gabe dago. Haren jabeek María Pilar Alonso ilobari eman zioten, eta honek semea den Iñigo Ibarra bertsolari eta idazleari. Ondoren, Mikel Belasko filologoaren eskuetan egon zen, eta azken honek niri kopia bat pasa zidan. Lerro hauen bidez, biziki eskertu nahi diet guztiei honen edizioa nire eskuetan utzi izana.

Berez, ez dakigu nor den egilea, ezta zein garaitakoa den ere, baina, María Pilarrek dioskunez, litekeena da etxe hartara Baztanen egondako aitaren arreba moja batek eraman izana. Izatez, etxe honetan moja horrek igorritako gutun bat badago 1840. urtekoa. Bertzaldetik, familia horretan –behiala ohikoa zen bezala– moja gehiago egon dira urteetan zehar.

Asteteren dotrina, miloika kristau katoliko kristautzeko erabili zen. Egilea Gaspar Astete Jesus Lagundiko apaiza izan zen, 1599. urtean argitaratu zuen dotrina hau *Catecismo de la Doctrina Cristiana*, edo «Astete» izena duena. Dotrina oso modu erraz eta didaktikoan idatzia dago, izan ere, galdera-erantzunen bidez bideratzen baita. Dударik gabe, ohikoak izanen ziren dotrina honen euskarazko itzulpen-moldaketak herri euskaldunetako apaizen artean. Horregatik, testua horietako bat da, baina ez da bertzeen hitzez hitzeko kopia.

Edizioan ez da aldaketa handirik egin, orrialdeen zenbaketa errespetatu da eta aditz nagusia eta laguntzailea eta bestelako hitz elkartuak bereiz idatzi ditugu, euskara batuan bezala, bilkurak aldaketa fonologikoak eragin ez badi-tu. Horrezaz gain, galdera (G) eta yardespena (Y) ezarri da denetan, nahiz baztuetan ez zen orijinalean ikusten.

Post quem data ezagututa, euskarazko bertsioak noizkoa den gelditzen zaigu jakitea. Datari dagokionez, baliteke XIX. mendekoa izatea, izan ere garai honetan egin ziren itzulpenak beste hizkuntzetara: euskara, katalana, italiara eta Filipinetako hizkuntzetara. Euskaraz idatziriko besteak, erronkarierakoak eta Ultzamakoak ere mende honen bigarren partekoak dira.

Baztanen badugu beste dotrina bat, Salaburuk (1986) argitaratutakoa. Aipatu dotrina hau Echeniquek idatzia da, eta Baztango fonetismoak islatzen ditu modu estuagoan: *untan, erte izu, sanduaquin...* Eskuarte dugu honek Baztango dotrinaren antza du, nahiz eta modu jarraian idatzia den, alegia, ez dago hainbeste izenbururik testuan zehar. Guk, gure edizioan, izenburuak azpimarratu ditugu, alegia, «Salvea», «Manamenduak»... horrela, argiago geldi daitezten. Bi dotrina hauek antzekoak dira; alegia, galderak eta erantzunak dotrina guztietan agertzen dira, baina, aldi berean, egileen arabera bada askatasuna moldaketak egiteko. Ez da hitzez hitzeko lana egiten, eta autore bakoitzak

bere estilora egokitzeko ahalmena egiten du, eta horiexek dira tokian tokiko kolore dialektala ematen dizkioten ezaugarriak.

Edizioan, transkribaketa egin dugu orrialdeen arabera, eta horietako bakoitzean galdera-erantzunen egitura gorde egin da. Bertzaldetik, idazkera errespetatu dugu, salbu aditz nagusia eta laguntzaileak aldaketa fonologikoak ekartzen zituenean, adib. *Eracutsazu* (2). Bertzelako hitz elkartuak bereizi ditugu: *pensa al dezaquegun* (4), *iten zayo* (2), horiek bi hitzetan bereizi ditugu. Ez da egokitzapen ortografikorik egin.

2. Testuaren azterketa

2.1. Grafia

Ez dago grafia sistematikorik, bat baino gehiago erabiltzen dira soinu bat ordezkatzeko, zalantzak eta errakuntza batzuk badira. Erraterako, hitz batean, batzuetan <v> eta bertzeetan . Honatx ohar garrantzitsuenak grafian: <c> grafemak soinu belareak ordezkatzeko ditu: *conty*, *seculaco* eta baita *ze*, *zi*-ri dagokion soinua ere: *Ycusi cinuen* (4), *gucia* (4), *gracia* (6), *lenbico* (15). Bertzaldetik, <qu> erabiltzen da soinu belarearendako: *dauquela* (6), *ezquerreco*.

Soinu afrikaturako, edo, behintzat guk uste dugun soinurako, <z> edo <s> grafema sinpleak ditugu batzuetan: *Sakvazalea* (6), *criazalea* (36), *premiatzalea* (5), *eta pensa* (7), *acabanza*, *baitabilza*, *verce*. Beste batzuetan <tc> eta <tz> ditugu: *barcatcen* (6), eta <tz> beste batzuetan: *criatzalea* (36) eta besteetan <c> soilik: *ilcen* (6), *persegucen* (2), *guruceac* (2).

<j> soinu belarearendako, batzuetan <g> dugu: *engendratua* (5), baina gehienetan <j>: *juicio* (20), *justicia* (19), *projimo* (20).

<y> grafiak soinu igurzkaria adierazten du, nahiko modu sistematikoan: *yustua* (4), *yangoicoa* (4), baita elizako maileguetan ere: *Yesucristo*, *yuramentu* (19). Baztango aldaeretan bezala, eta bokal tartean ere: *etsayac* (2), *zayo* (2).

Azkenik, <ñ> grafema agertzen da bokal erdia eta sudurkaria ordezkatzeko: *vaño* (11), *Escuñeco* (34), *soñetic*, *escuñecora* (2).

2.2. Bokalismoa-kontsonantismoa

Gure testuan bokal armonia kasurik ia ez da agertzen: *yauna* (22), *vecatuac* (29), *gucia* (29), baina horrek ez du erran nahi erabiltzen ez zenik, idatziek estilo jasoagoa islatzen baitute beti. Kasu batzuetan bai, adibidez *dire* (28), Ultzamako dotrinean, ordea, arauzkoa da.

Bokaletan ez dago *e* eta *o*-ren disimilaziorik artikuluauren aurrean. *Ea*: *salvazalea* (6), *semea* (6), *eguitea* (2), *oa* taldea ere bere horretan agertzen da: *yateracoa* (2), *poderosoa* (4), *credoa* (12). *Eu* diptongoa agertzen da *yeus* hitzean: *yeusetaric* (6), goi nafarreraz eta Baztanen arrunta dena.

Sinkopa gutxi dago: *batrez* (32), behintzat idatzirik. Horrek ez du esan nahi erabiliko ez zenik: *trinidad* (2), *lembicico* (3). Izan ere, testu idatzietan fonetismoak saihesteko joera dago.

Aferesiari dagokionez, *куси* (21), ta *ycusi* (4) biak txandakatzen dira. Bertzaldetik, *maten* (6), *torri* (17), *carcea* (29) formak ditugu, baztaneraz eta hegoaldeko goi nafarreran bezala, eta *egin* > *in*, eta *dezagun* > *zagun* (31) dugu. Baina, aldaera osotuak ere badira: *in dezaquenic* (6), *in cituela ceruac eta lurrac* (6).

Diptongoaren bigarren elementuaren kontsonantizazioaren adibide bat dago testuan: *crístaba* (11), hain zuzen. Mitxelenak (*FHV*: 177) Gipuzkoako ezaugarritzat du. Forma hau agertzen da Kardaberazen testuetan, Otxoa Arinen dotrinan, eta Xenpelar eta Txirrita bertsolarietara ere badarabilte, eta horrela, beste askok. Nafarroan ere bildu zuen Zelaietak (2004: 237) Malerrekan, Baztanen, Bertizaranan, Erroibarren eta Esteribarren aurkitu du kontsonantizazio prozesu horren berri. Hegoaldean, ordea, Lizarraga Elkanokoak, Elizalde eta Beriainek *kristio* dakarte.

Adibide batzuetan tarteko *-h-*a kontsonante bihurtu da, *igues* (ihes) (1), *zagarrena* (zaharreña) (35), *logian* ‘lohian’ (13). Bereziki *zagar* adibidea Baztangoa da, OEH-k dakarrenez ‘Aparece en textos baztaneses’. Badugu bertze testu-inguru batean kontsonantizazio prozesua: *emaen davena berce iza...*, hor *duena* > *dabena* bihurtu da, eta pentsa dezakegu autorearen hizkeran ohiko xamar izan zitekeela.

Ezin da baztertu, berriz ere, beste eredu literarioen eragina egon daitekeela horren atzean. Berez, Salaburuk (2005: 189) hango eta hemengo testuak dakartzki, ustez denak Baztangoak diren. Horietako batzuetan Etxenikek moldatutakoetan, antzeko kontsonantizazioa aurkitzen dugu: *zergatik erakusten baitzaben* (Etxenike, San Matearen Ebanjelioa, 41). Antzera gertatzen da Ultzamako dotrinetan ere.

Bait- morfema txistukarien bilkuretan kontsonante afrikatuak sortzen ditu: *baitcen* (34), *baitzituén*, eta *baita* kontsonante herskari ahoskabeak ere: *baitabilza* (2).

Kontsonante herskari ozenak ditugu hasieran, erraterako, *b-*: *becatuac* (12). *Yod*-ari dagokionez, *y-* kontsonante igurzkaria dugu hasieran hitz arrunteetan: *yeyiqui*, *yaquin* nahiz elizako izenetan ere: *Yangoicoac* (12), *Yauna* (13), *Yesu Cristo* (13).

Errotazismoari dagokionez, *-rtz-* taldea erabiltzen da: *orremberce* (2), *erran* (3), *ainberce* (10). Honek erakusten du GNko eremu batekoa izan daitekeela,

hain zuen ere ez Leitzaldekoa, edota GN hegoaldekoa. Hasierako *r*-ari dago-kionez, kontsonante protetikoa batzuetan erabiltzen da eta bertzeetan ez: *er-re-velatu* (10) *revelatu zion* (4).

Sudurkarietan, *-ione* atzizkia dugu gazteleratikako *-ión*-ez bukatutako mai-leguetan: *disposicionea* (21), *peticione* (16), *oracione* (2), eta *saindua* (3) aldaera, goi nafarreraz ohikoa dena. *Ungui* (12) forma dugu, sudurkarien aurrean itxita. Baztanen horrelako forma sudurkari itxita agertzen da, baina, determinatzaileetan.

Goan forma erruz agertzen da Bonaparteren idazkietan; orain *gan* da Baztanen nagusi: *goan cen* (10). Bertzaldetik, *egon* aditzaren iragana *-a*-rekin da, goi nafarreraz eta baztaneraz bezala: *veira zauden* (10).

2.3. Izen morfologia

Kasu sozietiboan *-aikin* dugu, *gorputcaiquin* (10), *veraiquin* (10), *vecatuaiquin* (30), *proposituaiquin* (30) GN iparraldekoan eta hegoaldekoan ditugunen antzera. Horrelakoak gaurko baztaneraz agertzen dira eta Baztango dotrinean ere bai (Salaburu 1986). Baina, *-rekin* morfema ere agertzen da: *nai izate utsarequin* (6).

Kasu instrumentalean <z> morfema agertzen da: *oracionez*, *humildadex* (2) ez Hegoaldeko goi nafarreraz bezala, horretan 's' agertzen baita.

Ergatibo pluralean *-ek* kasu bat dugu, horrek goi nafarreraren edo ekialdeko isuria du: *norc erran credoa? Amavi apostoluec* (4). <E> hori izan daiteke bokal asimilazioarengatik, baina, arraroa da, izan ere kasu gehienetan ez da gertatzen.

Kasu genitiboan *-ain* bukaera arrunta dugu kasu batzuetan, goi nafarreraz eta Baztanen bezala: *semeain* (5), *sacramentuaiñ medioz* (16), *obispoain bendizioa* (23) *gourputzain partetic* (23), baina, *-aren* ere badago singularrean modu sistematikoagoan: *Yangoicoaren* (8), *Aitaren eta Semearen eta Espiritu sainduaren* (8).

Kasu ablatiboan *-tarik* erabiltzen da, goi nafarreraz bezala: *Ez yeusetaric in cituela* (6). Eta bizidunetan, *-ganik* dugu: *Yaunaren ganic* (3), baztaneraz eta GN hegoaldekoan bezala.

Plural hurbilaren adibideak badira: *zein da etsai otan aundiena?* (2). Antzera gertatzen da Ultzamako dotrinean, horretan agertzen dira: *guzioc* (11), *desterratuok* (Ibarra 1992: 927).

Izenorde arrunteetan, *hunec*, *hunen*, Baztango aldaerak ditugu. Indartuak posesiboak dira: *zere*, *bere*, eta *gere geren*, *gerekin* ditugu: *Zere gurutze sainduarekin* (3), *Bere nai izate utsarequin iten duela* (6), eta kasu sozietiboan ere indartu kasuak badira: *Zergatic beti guerequin da... lagun eta gueren ga-*(3), *Beraren ministro leyalac* (18). *Hark* izenordea ere agertzen da, eta honek Nafarroako hegoaldearekin lotzen gaitu: *tela gauzatic arc ezin in dezaquenic* (6). Bertzaldetik, *ok*, *ek*, *ekena* dira

Baztango eta Ultzamako erakusleak eta izenordeak, eta hemen ere horrelakoak ditugu: *vicio oquen* (25), *ec cusico dute* (27), *oc* (28). *Eken* aldaera Baztangoa da eta Bonaparteren testuetan sistematikoki agertzen da: *equena izanen da erreñua* (27). Bertzaldetik, izenordain zehaztugabea *nior* (14) da, Goi nafarreraz eta baztaneraz bezala.

Izenordain galdetzailea *zertako* da. Hor ikusten da aldaera arrunta islatu dela, hizkera biziarena, eta ez kultoarena. Baztanen eta ultzameraz erabiltzen da. Aditzondoak *-agoko* morfemarekin egiten dira, goi nafarreraz bezala: *zarra-gocoac respetacea* (19).

Azkenik, posposizioen alorrean, *arte*, *artetic* (36) dugu, horrek kanpoan uzten ditu Ultzamako eta GN hegoaldeko aldaerak. *Landa* posposizioa, *fedezcoaz landara* (12), erabiltzen da Nafarroako Erroibarren, ekialdeko hizkeretan eta BNeraz ere.

Atal hau bukatzeko, *-ki* atzizkia azpimarratu behar da, erruz erabiltzen dena: *eguiazqui*, *errealqui* (23), *errezqui* (2), *soilqui* (7) *naturalqui* eta *milagrosoqui* (9).

2.4. Aditz morfologia

Aditz laguntzaile deigarrienak nork- nori- nor sistemarenak dira: *eracusten dacun* (21), *erran dazu (dipun)*; hauek Baztanerarekin bat datoz.

Edu-en laguntzaileak hauek dira: *icusi zinuen* (4), goi nafarreraz bezala. *-en* morfema erabiltzen da geroaldia egiteko: *nola yaquinen du?* (3), goi nafarreraz eta Baztanen ohikoa den bezala, *eduki* aditzaren adizkiak badira: *dauquela* (6).

Pluralgilea: *-it-* da batzuetan: *guardatcen dituenac* (18); bertzeetan, *t: menos-preciaçen tugularic munduco ponpac* (1), *Orai tugun anima eta Gorputz veraiquin* (13), baztaneraz eta ultzameraz bezala, *-zki* ere erabiltzen da *jakin* aditzarekin, eta nork-nori-nor laguntzaileekin: *daquizquiellaric Credo*, *edo articulo fedezcoac* (3), *dauzcazunac* (4), *man zazcun* (21).

Ahalera forma bat baino gehiago erabiltzen dira: *ahal*, *ezin* + *dezake*, *dagoke*. *Pensa al dezaquegun* (4), *ecin vai dagoque* (14). Bertzaldetik, aditz oina erabiltzen da ekialdeko hizkeretan eta goi nafarreraz ere, arrunta da aginterazko, ahalezko eta subjuntibozko hitzetan: *aparta dezaquegun* (3), *pensa al dezaquegun* (4), *ecin padeci dezaquena* (13), *Barca diezaguzu* (16). Hauetaz gain, *ezin dezake* egitura erabiltzen da. Honezaz gain, *ezin* + ad. nagusia + **ezan* egitura dugu: *tela gauzaric arc ezin in dezaquenic* (6). Egitura bera gertatzen da ultzameraz. Bertzaldetik, aditz nagusirik gabe, *dezake* forma agertzen da: *gauza gucia dezaquena* (9). Egungo baztaneraz ez da gehiegi erabiltzen, arruntagoak dira *ahal ...tzen* + *izan*-en modukoak.

Aditz sistemei dagokienez, *nork-nor* sistema erabiltzen da nahiko modu sistematikoan: *adoratcen zaitut eta benedicatcen zaitut* (3), *lotzen gaituzte, zor gaituzte* (16), *gure animaco etsaiac gu tentazen* (2), *libra gaican* (2), *bota baininduzu infernue-tara* (30), *salvatu quintuen* (9). Izan daiteke formula hauek errotuak daudelako edota, baztaneraz, *zaitut* eta horrelakoak bertze hizkeretan baino sistematikoa-goak direlako.

Nork-nori-nork sisteman *varcatu deztegun eta daveztegun* (16) (guk-haiei) formak agertzen dira txandaketan, baztaneraz Salaburuk (1984) bildutakoen antzerakoak. Bertzaldetik, hark, haiek-guri adizkiak, *daku, dakute* dira, baztaneraz nagusi diren adizkiak dira: *eta Eliza ama sainduac ala eracusten dacun* (21), *in dactenei* (16), *eramaten dacuten* (19), *eracusten dacun* (21).

Geroaldian *bilatico* (32), *salvatico* (31), *condenatico* (32) aldaerak nagusitzen dira, alegia, *-tiko* bukaera dutenak geroaldia egiteko hizkera arinean. Hauek ohikoak dira goi nafarreraz, baztaneraz ere arrunta da, nahiz ez den sistematikoa.

2.5. Sintaxia

Kausazko perpausetan bi morfema daude *zergatik* eta *bait*-, biak perpaus berean: *Zergatik...bait* egitura dago kasu batzuetan. *Zergatic vaitire iru presuna diferenteac* (5), *Zergatic garaitu vaitzituen gurucean vere eriotzarequin eta* (3). Antzekoak erabiltzen dira ultzameraz (ik. Ibarra 1992: 932).

Erlatibozko esaldietan: *zein, zeinek, zeinetan...bait*, izenorde erlatiboaren egitura dugu. Jakina den bezala, ekialdean aunitz dira *bait*-en bidez eginiko erlatiboak, honelakoak goi nafarrera hegoaldekoan eta baztaneraz ere ohikoak dira: *Dotrina-ren lenbicio partea zeñetan declarazen va(i)* (4), *izate divino bat ceñec iten vaicaitu* (21) ere erabiltzen da. Antzera erabiltzen da Ultzamako dotrinean ere (Ibarra 1992: 932): *ceñi vaigaude gucioc obligaturic* (11), *vaice Aita zeinetan Aitaric estu* (11).

Behar-ekin osaturiko perifrasiak egitura hau dute: *Behar* + ad. lag. + ad. nagusia. Hau da errepikatzen den egitura: *yaquin vear du zer vear duen sinetsi (escatu, obratu, errecibitu)* (3). Egitura hau ohikoa da Baztanen, *bear tzueta izen, ien bear tzinuen* eta horrelakoak biltzen dituzte Salaburuk eta Lakarrek (1995: 141). Salabururen dotrinean (1986) ere agertzen da.

Osagarri zuzena genitiboan maiz agertzen da, ondoren *-tzea, -tzera, -tzeko* nominalizazioa dagoenean. Ez da sistematikoa, baina bai ugaria. Batzuetan bai: *escuco bi veatzez gurutze vaten eguitea; Ycusi gaveco gaucen sinistea* (4), *Santa Isabelen visitacera* (17), *ama virginaren salutatzera* (17), *vecatu en barcatceco* (12), *Gu vecatuaren salvatzegatic* (9) eta bertzeetan ez: *Gure fede saindua confesatu eta airtortceco* (4). Bertzaldetik, Baztanen ere ohikoa izan da eta gaur egun ere hala da txandaketa hau.

Utzi aditzarekin *-tzera* nominalizazioa dugu: *ez utzi tentacioan erorcera* (16), *ez gaitzatzula utzi erorcen tentacioan* (16) goi nafarreraz bezala.

Baldintzazko esaldietan, aspektu burutagabe eta burutuarekin osatzen dira aditzak: *in balezaque, eta iltcen balira...* (31), eta *joan* aditzaren forma sintetikoa ere badago: *valoaci confesatcera, in balezaque* (31).

Ordenari dagozkionez, batzuetan (*da, dire*) adizkiekin hasten dira erantzunak: *zer gauza dire articulo fedezcoac? Dire gure fede sainduco...* (4). *Da gauza bat guc erran eta pensa al dezaquegun vaño ...ndiagoo* (4). *Da trinidadre iru garren presuna* (5). Eta galderetan honelako ordena ere badago: *Norc bestac guardatcen ditu?*

Bertzaldetik, ezezko esaldietan, aditz nagusia hasieran agertzen da: *arcen eztuela* (13), *ecin padeci dezaquena* (13).

Denborazko esaldietan hauek dira atzizkiak: ekialde zabaleko *-larik* morfema da arruntean agertzen dena goi nafarreraz eta ekialdeko isurian bezala. *Menospreciatcen tugularic munduco ponpac* (2). Baina, *-enean* atzizkia ere agertzen da: *gurutzera adoratzen duzunean nola erraten duzu?* (3), *ura allegatzen denean?* (3), *aitagurea erraten duzunean norequin mintzazen zara?* (13).

Datiboaren konmuztadurari dagokionez, batzuetan aditzean islatzen da, eta bertzeetan kasu marka bai, baina, aditzean ez da agertzen, gaurko baztaneraz bezala: *G. Orobat eguin veadugu verce Sainduen imaginei ere* (17). *G. Otoiz inuiar davegu anguiru eta Sainduei?* (17) *erran nai du oney* (36).

Azkenik, ikuspuntu semantikotik orijinala da konparaketa egiteko erabiltzen den esaldi errima duena: *Ceruan izar, Lurrean velar, Itsasoan legar hainberce...* (12).

2.6. *Lexikoa eta aldaerak*

Honako lexemak suertatzen dira aipagarri:

- *Aitetama* (8), goi nafarreraz agertzen da.
- *Asperteco* (25) ‘vengarse’ *Refranes y Sentencias* en agertzen da, **Saira nozu, asperetan gatx eztozu*. «En la buitrera me tenéis, no os será difícil el vengaros», eta gero, lapurteraz XIX. mende erdirarte, eta XIX. mendean hegoaldeko autore batzuk erabiltzen dituzte.
- *Agiz* (27) GN osoan eta Baztanen ere agertzen da.
- *Alke, alquez* (32), *antzi* (32), goi nafarrerazko, lapurterazko eta Baztango hitzak dira.
- *Ardo shorta* eta *ur ttanta* (14), dira hemengo aldaerak eta baita Nafarroako aldaera nagusiena ere.
- *Artaño* (24), Baztango aldaera da.
- *Asesiatu* (27), ‘saciarse’, iparraldeko aldaera.

- *Aurride*, goi nafarrerazko hitza, Baztangoa ere bai.
- *Baketierra*, lapurteraz erabilia XVIII. menderarte, urria da XX. mendean. Ultzamako dotrinean (Ibarra 1992) *bakosua* agertzen da.
- *Bearri* ‘belarri’ (25), *usmatcea* (25), *agoz* (15), *shorta* (14), *ttanta* (14), dira Baztaneraren hitzak.
- *Bida* (23), Baztango aldaera da, *bide*-rekin batera.
- *Egorzi* (34) ‘ehortzi’ forma dugu, bertzeak bertze Baztanen erabilia.
- *Ekendu* da erabiltzen den forma: *equencea* (19), Erroibarren bezala.
- *Gararaitu* (3) dugu, seguraski akats bat dena. *Garaitu* da forma erabiliena, baina *garraitu* ere agertzen da, Laphitzek, Etchamendik eta Iratzederrek erakusten dute.
- *Gogo ita* (25). Ita. *Kezka* (desazón, inquietud) Larramendik erabiltzen du.
- *Guanta* ‘joanda’ (32) aldaera agertzen da aditzean, egun *gan* erabiltzen denaren antzekoa. *Guan* aldaera erabiltzen da lapurterazko testuetan, XVII. eta XVIII. mendetik aurrera.
- *Guratsa* da Bortzirin eta Ultzaman erabiltzen dena. *Guratsa* (AN-5vill-ulg, B), *Vocabulario navarro*-n ere aldaera hau agertzen da.
- *Iduricantza* (17), ‘imagen, representación’ Eliza katolikoaren hitza da.
- *Aurride* (17) Ultzama eta Baztango eitea du hiz honek.
- *Igan* (36) dugu, Baztanen *igan* eta *igen*, biak erabiltzen dira.
- *Iquitzea* (ukitu), errakuntza bat izan daiteke. *Iku* eta *ukutu* dira Baztango aldaerak, Izetak bilduak.
- *Logi* (13) ‘lohia’, Baztango aldaera da.
- *Mertxede*, *mercede* (13), goi nafarrerazko Baztango eta Erronkariko aldaera da.
- *Ohatze* (goatze), goi nafarrerazko testu guztietan ohikoa da.
- *Ohoratu* (34) da goi nafarrerazko hitza.
- *Orai*, baztaneraz eta GN hegoaldean bezala.
- *Podore* (8) agertzen da baztaneraz, lapurterazko testuetan, GN eta BNkoetan ere. Bertze aldetik, gipuzkeran (Ubillos, Otaegui) eta bizkaieraz (Cardaberazko dotrinean) erabiltzen da.
- *Presuna* (11) agertzen da modu sistematikoan eta iparraldeko eta Baztango aldaera da, Bonaparteren eskuizkibuetan erruz agertzen dena.
- *Soilki* (8), goi nafarreraz eta lapurteraz erabiltzen da.
- *Tiipi* (15), goi nafarreraz, baztaneraz, lapurteraz, eta zubereraz ere ohikoa da.
- *Usmatu* Baztango aldaera da, *usmetu*, hobe esanda. Ultzamako dotrinean, ordea, *urrin egitea*, dator.
- *Yardetsi*, *yardespina* agertzen da dotrina guztian zehar.
- *Zautu* ‘ezagutu’ ere Baztango aldaera da.


2.7. Ondorioak

Hasieran genioenez, dotrinaren egilea ez dakigu nor den, beraz, hori da abiapuntua. GN iparraldeko isuria erakusten duela uste dugu, zehazkiago, baztaneraren ezaugarri ugari ditu. Bertzaldetik, ez dugu ikusten GN hegoaldekoaren ezaugarri ohikorik, erraterako, Ultzameratik urruntzen da. Genioenez, Elizondoko dotrinaren antzekoa da (cf. Salaburu 1986), baina dotrina honen egileak, Echeniquek, Bonapartek eskaturiko ezaugarriak islatuko zituen, ohikoa zen bezala. Horregatik, azken honek islatzen du modu fidelagoan hementxo hizkera *-aren >-ain*, *-aikin* aldaerak eta *untan*, *erten* (erraten), *ízu*, *bea* 'izu eta abar.

Caminoren (2003a: 43eta hurrengoak) irizpideetan oinarrituz, testu ez erabat fidagarria da hau, hizkeraren ezaugarriak modu ez zorrotzegian agertzen dituzten testu horietakoa. Gure ustez, ahozkoa baina hizkera pixka bat jasoagoa erabiltzen du horretarako. Erran bezala, baztaneraren ezaugarri ugari ditu: ezaugarri fonetikoak, aditz laguntzaileak, determinatzaileak, etab. Hauek hurbiltzen zaizkio baztanerari. Lexikoaren item anitz ere horkoak dira, nahiz eta baztaneraren ezaugarri guztiak ez diren agertzen.

Bibliografia

- BONAPARTE, *Bonaparte ondoreko eskuizkribuak*. Eskuragarri [http://bonaparte.deusto.es/includes/paginas.php?id_menu=10&cid=11&id_idioma=es#].
- CAMINO, I. (2003): *Hego-Nafarrera*, Iruña, Nafarroako Gobernu.
- (2003b): «Hego-nafarreraren egituraz», *FLV*, 94, 427-467.
- ELIZALDE, F. [1735] (1994): «Apezendaco dotrina christiana uscaras», *FLV*, 65, 41-65.
- EUSKALTZAINDIA (1987-2005): *Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbo, Euskaltzaindia, [=OEHL].
- IBARRA O. (1992): «Ultzamako euskaraz idatziriko bi dotrinaren edizioa eta azterketa», *Anuario Del Seminario Julio De Urquijo*, 1992-III, 915-977.
- (2007), *Erroibarko eta Esteribarko hiztegia*, Iruñea-Bilbo, Nafarroako Gobernu eta Euskaltzaindia.
- MITXELENA, K. [Michelena, L.] [1961] (1977): *Fonética histórica vasca*, ASJU-ren gehigarria, 4, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ONDARRA, F. (1981): «Primer sermón en vascuence navarro (1729)», *FLV*, 38, 147-173.
- (1982): «Textos en vascuence navarro de Baztán, Nuín y Urdazubi», *FLV*, 40, 387-399.
- SALABURU, P. (1986): «Baztango euskalkiaz. Elizondoko doktrina bat», *ASJU*, XX-3, 817-844.
- SALABURU, P. eta LAKAR, M. (2005): *Baztango mintzoa. Gramatika eta hiztegia*, Iruñea-Bilbo, Nafarroako Gobernu eta Euskaltzaindia.
- SANTAZILIA, E. (2013): «Iruñe ondoko euskal testu zahar berri bat», *FLV*, 116, 91-121.
- ZELAIETA, E. (2004): «Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (I)», *FLV*, 96, 223-248.



Asteteren doktrina.

ERANSKINA

Aita Asteteren dotrina

<1. orr>¹.

<2. orr> ²[2]

G. ... agoan?

Y. Yangoicoak libra gaizan itz gaisto gucieta...³

G. Zergatic Bularretan?

Y. Libra gaitzan Obra eta deseyu gaisto gucieta

G. Cer da Santiguatzea?

Y. Escuñeco escuco bi veatzez gurutze vaten eguitea copet⁴ bularretara, ezquerreco soñetic escuñecora deitzen dugu [la]ric trinidad e Santisima.

G. Eracutsazu nola?

Y. Aitaren eta Semearen eta Espiritu sainduaren izenean [a]men

G. Noiz usatu vear duzu señaie oitaz?

Y. ... obra on asteracoan edo aun... zen garenea⁵... edo peligröen batean principalqui, gatzetic yeig⁶... an, echetic ateratcean elizan sarcean, yateracoa⁷

...teracoan, eta verce al dugun denbora gucietan.

G. Cergatic orren verce alde orremberce lecutan?

Y. Cergatic baitabilza gure animaco etsayac gu tentazen eta perseguicen.

G. Cer etsai dire oriec?

Y. Mundua, Demonioa, eta ara.uia⁸

G. Nola igues iten zayo munduari?

Y. Menospreciacen tugularic mund[u]co ponpac...⁹ deac.

G. Nola Demonioari?

Y. Oracionez eta umildadez.

G. Nola araguiari?

-
1. Iluna eta irakurtezina.
 2. Iluna, irakurgarria, ezkerreko ertza jana erdialdean.
 3. *gucieta* erabat bukatu rik... ez du ematen deus falta denik.
 4. Ez da deus falta *copet* eta gero.
 5. *Edociñ aunfurguetzen*. Hitz bat hasieran/orbana/ bukaeran *a*.
 6. Papera falta da (hitz bat), bukaera garbia *yeig* edo *yeiq*.
 7. Papera falta da.
 8. *Araguia*.
 9. Papera falta da.

- Y. Baru egunez eta gorputza mortificatuz
 G. Zein da etsai otan aundiena?
 Y. Araguaia Yauna. <3. orr>
 G. Zergatic beti guerequin da... lagun eta gueren ga-----¹⁰
 Y. Aparta dezaquegun.
 G. Badu guruceac orien contra virtuteri?
 Y. Bai Yauna.
 G. Nondic du Guruceac virtute ori?
 Y. Yesu Cristo gure Yaunarenganic.
 G. Zergatic?
 Y. Zergatic gararaitu (sic) vaitzituen guruzean vere eriotzarequin.
 G. Gurutzea adoratzen duzunean nola erraten duzu?
 Y. Adoratzen zaitut eta benedicatzen zaitut Yesu Cristo nere Yauna, cergatic zere gurutce Sainduarequin erremediatu zinuela mundua.
 G. ... usi dugu nola zaren Cristaba cristabaren izen eta i-¹¹ ...eaz gueyago errandazu¹²
 G. Zebat gauza dago obligaturik yaquitera cristaba adin ura allegatzen denean?
 Y. Lau Yauna.
 G. Zein dire?
 Y. Lembicicoa yaquin vear du zer vear duen sinetsi,
 Bigarrena yaquin vear du zer vear duen escatu,
 Yrugarrena yaquin vear du zer vear duen obratu,
 Laugarrena yaquin vear du zer vear duen errecibitu,
 G. Nola yaquinen du zer vear duen sinetsi?
 Y. Daquizquiellaric Credo, edo articulo fedezcoac.
 G. Nola yaquinen du zer vear duen escatu?
 Y. Daquizquiellaric Aitagurea avemaria eta verce elizaco ora...¹³
 G. Nola yaquinen du zer vear duen Obratu?
 Y. Daquizquiellaric Yangoicoaren legeco manamendu sainduac elizaco borzac eta amalau obra misericordiazcoac (sic)
 G. Nola yaquinen du zer vear duen errecibitu?
 Y. Daquizquiellaric elizaco zazpi sacra[mentu] Sainduac <4.orr>

10. Tolestua ga... eta gero.

11. *icusi ecusi*. Orban iluna.

12. *zanaz ... erradazu* jartzen du eta «n» dago *erra*-ren a gainean, txikiago. Ondoren marra luze bat.

13. Ilun dago bazterrean, txikiago bukatu ezin irakurri.

**Dotrinaren lenbicio partea zeñetan deklarazen va(i)¹⁴
Articulo Fedezcoac Credoan dauden vezala¹⁵**

- G. Norc erran credoa?
Y. Amavi apostuluec.
G. Zertaco?
Y. Gure fede sainduco misterioac eta gauzac eracusteco.
G. Zuc certaco eraten (sic) duzu?
Y. Cristabac dugun fede saindua confesatu eta aitorceco¹⁶
G. Zer da fedea?
Y. Ycusi gaveco gaucen sinestea.
G. Ycusi cinuen Cristo sortzen?
Y. Ez Yauna.
G. Cusi cinuen ilzen edo ceruetara igaten? ¹⁷
Y. Ez Yauna.
G. Sinesten duzu?
Y. Bai Yauna.
G. Zergatic sinesten duzu?
Y. Zergatic gure Yangoicoac elizari ala revelatu zion eta eta eliza ama sainduac ala eracusten dacun¹⁸.
G. Zer gauza dire Zuc cristaba bezala dauzczunac eta sinesten dituzunac?
Y. Articulo Fedezcoac principalqui Credoan dauden beza[la]
G. Zer gauza dire Articulo fedezcoac?
Y. Dire gure fede sainduco misterioa principalqui eta andienac
G. Certaco dira?
Y. Guri aditcera emateco norden Yangoico eta norden Yesucristo.
G. Nor da Yangoicoa?
Y. Da gauza bat guc erran eta pensa al dezaquegun vaño..ndiagoa Yaun bat finic gave ona yustua poderosoa¹⁹... gauza gucia dezaquena gauza guciei...²⁰. <5. orr> emancaena, acanvanza (sic) emaeu davena verce iza...²¹ na, onen premiazalea, eta gaistoen castigazalea.
G. Nor da trinidad Santisimoa?

14. Hasiera pixka bat moztua, ñ-a ez da garbia. Bukaera *va* edo *vai* (fotokopia?).

15. Azpimarraturik.

16. Azken *o* moztua.

17. *cusi* aurretik deusez, *igaten* aurretik orban tatxatua hizki bati dagokiona.

18. *era custen*.

19. Hasiera tolestua, hitz bat dago hor. Bukaerako hitza ere ez da irakurtzen.

20. Hasiera tolestua, hitz bat dago hor. Bukaerako hitza ere ez da irakurtzen.

21. Bukaera tolestua.

Y. Da Yangoicoa vera Aita, eta semea, eta Espiritu Sain²² dua iru presuna diferenteac eta eguiazco Yangoico bat bacarra.

G. Aita yangoicoa da?

Y. Bai Yauna.

G. Semea Yangoicoa da?

Y. Bai Yauna.

G. Espiritu Saindua Yangoicoa da?

Y. Bai Yauna.

G. Beraz vadire iru Yangoicoa.

Y. Ez Yauna iru presuna diferenteac eta eguiazco Yangoi...²³ bat vacarra.

G. Aita semea da?

Y. Bai Yauna.

G. Espiritu Saindua Aita edo semea da?

Y. Ez Yauna.

G. Zergatic?

Y. Zergatic vaitire iru presuna diferenteac vata verce eztiren...²⁴

G. Nor da Aita?

Y. Da trinidad Santisimoco lenbico presuna divinoa Engendratu zuena Seme bat verequin izatez eta presunaz diferente.

G. Nor da semea?

Y. Da trinidad Santisimoco bigarren presuna divinoa engendratua aita eternoaren entendimentutic.

G. Nor da espiritu saindua?

Y. Da trinidad iru garren presuna divinoa datorrena edo proceditcen (sic) duena arte Semeain arte...²⁵ < 6 orr >

G. ... presuna otan cein da Zagarrena?

Y. Iruac verdin Yauna.

G. Yzan zuten asteric?

Y. Ez Yauna.

G. Nola da Yangoico podore gucia duena?

Y. Bere nai izate utsarequin iten duela nai duen gucia eta tela gauzaric arc ezin in dezaquenic.

G. Nola da criazalea?

Y. Ez yeusetaric in cituela ceruac eta lurrac eta in cituela bezala berac dauquela contu.

G. Nola da salvazalea?

Y. Maten duela vere gracia sain (sic) eta barcatcen vecatuac.

22. Bukaera iluna, ezin ziurtatu *sain* ala *san*. Puntu bat ikusten da.

23. Bukaera iluna.

24. Beharbada zerbait egon liteke bukaeran, baina amaiera garbia da.

25. Bukaeran bada zerbait.

- G. Nola da Gloria emalea?
Y. Aren gracia sainduan ilcen denari maten diola seculaco loria eta aren gracia sainduan ilcen eztenari seculaco infernua.
G. Aita podore gucia duena da?
Y. Bai Yauna.
G. Semea.
Y. Bai Yauna.
G. Espiritu Saindua?
Y. Bai Yauna.
G. Aita criatzalea da?
Y. Bai Yauna.
G. Semea?
Y. Bai Yauna.
G. Espiritu Saindua?
Y. Bai Yauna.
G. Aita Salvazalea da?
Y. Bai Yauna.
G. Semea?
Y. Bai Yauna.<7 orr>
G. Espiritu Saindua?
Y. Bai Yauna
G. Aita gloria emalea da?
Y. Bai Yauna
G. Semea?
Y. Bai Yauna
G. Espiritu saindua
Y. Bai Yauna.
G. Iru dire?
Y. Ez Yauna bat vacarra.
G. Zergatic ezta vat vaicic?
Y. Zergatic vaita Yangoico bat baicic.
G. Aita Redentorea da?
Y. Ez Yauna.
G. Semea?
Y. Bai Yauna.
G. Espiritu Saindua?
Y. Ez Yauna.
G. Zergatic da semea redentorea eta ez aita eta ez espiritu saindua?
Y. Zergatic semeac bacaric artu zuen gure naturaleza gure Erremediatzegatic eta vitziza eracusteagatic.
G. Vadu gorputzeco figuraric guc vezala?
Y. Ez Yauna.

- G. Zergatic du?²⁶
 Y. Zergatic den Espiritu puru utsa pensamentu vat vezala-
 G. Yeso Cristo vada Gorputceco figuraric guc vezala?
 Y. Yaingoicoa den partetic ez yauna. Cergatic den espiritu puru ²⁷ Vañan bai guizo-
 naren partetic.
 G. Iru presuna divinotan Aita eguin zen guizon?
 Y. Ez Yauna
 G. Espiritu saindua in cen guizon?
 Y. Ez Yauna <8. orr>
 G. ²⁸ ... in zen guizon?
 Y. Semea soilqui cen guizon eguina deizen vaita Jesucristo
 G. Non in cen guizon?
 Y. Ama virginaren entrañetan?
 G. Noren obraz?
 Y. Espiritu Sainduaren obraz eta graciaz
 G. Nola izan cen obra ura?
 Y. Espiritu Sainduac amabirginaren entraco odoletic in zuen gu²⁹ bat ez yeusetaric
 Criatu zuen anima bat anima eta gorpu³⁰ ura elcarri unitu trinidad Santisimo vigarren
 presuna zen vaita semea unitu zituen anima eta Gorputz ura vmonen³¹? Orrequin den
 yangoico baicic ezena guelditu zuen jangoico eta guizon eguinic jevecatcen³² celaric
 presuna umano izatea.
 G. Aitac in zuen obra³³
 Y. Bai Yauna
 G. Semeac?
 Y. Bai Yauna
 G. Zergatic erraten dugu vada Espiritu Sainduaren obra izan zen?³⁴
 Y. Zergatic obra au izan ze amoriozcoa amorioa tocatcen zayo ispirit u sainduari aitari
 podorea semeari yacintasuna becala³⁵
 G. Nor da Jesucristo?
 Y. Da aitetamaren seme vicia trinidades Santisimoco iru... presuna Yangoico eta gui-
 zon eguiatzcoa.

26. *D* hori ezabatua agertzen da pixka bat.
 27. *Itta*? Edo horrelako hitz bat agertzen da.
 28. Hitz bat falta da.
 29. Hemen letraren bat falta da, orrialde bukaeran.
 30. Azken letra edo bi letra falta dira.
 31. Gaizki eta ilun ikusten da.
 32. *Jeeccatcen* jartzen duela ematen du.
 33. Orban beltza, hitz bat falta da.
 34. Hitz bat falta da.
 35. Azkeneko *-la* bukatu gabe.
 G. Nor da *Jes*.

- G. Zenbat naturaleza ditu Yesucristoc?
Y. Vida. Yauna bat yaungoico partetic eta vercea yaunaren partetic.
G. Zenbat entendimentu?
Y. Vida. Yauna bat Yangoicoaren partetic eta vercia gizon³⁶ partetic <9 orr.>
Y. Zenbat borondate?
Y. Bat yauna da au Yangoicoa den partetic
G. Zenbat memoria?
Y. Bat Yauna eta au guizonaren partetic. Yaungoicoa den partetic eztu memoriatic.
G. Zergatic eztu?
Y. Zergatic dauca gauca guciac presente eztu memoria biarric
G. Zer erran nai du Jesusek?
Y. Salvatzalea Jauna
G. Zergatic salvatu guintuen?
Y. Gueren... tuaric eta Demonioaiñ cautiverioric
G. Zer erran nai du Cristoc?
Y. Ungitua
G. Zertaz izan zen ungitua?
Y. Espiritu Sainduaren graziaz eta doayez
G. Cristo gure yauna nola izan zen conzebitua eta sortu zen amaverginarenganic?
Y. zen³⁷ zuetaric Yangoicoac sobre naturalqui eta milagrosoqui.
G. aren ama vici izan zen veti Virginia?
Y. Bai Yauna veti.
G. Non il zen Cristo?
Y. Gurutcean Yauna
G. Zergatic?
Y. Gu vecatuaren salvatzeagatic
G. Ilzen Yangoicoan den partetic edo guizona den partetic Guizonaren partetic,
Yauna Yangoico den partetic il tzaitequen?
Y. Ez yauna
G. Zergatic? <10 orr>
Y. Zergatic zen Espiritu puru utsa ecin padeci zaquena
G. Zer da ilzea?
Y. Anima gorputzetic partitza
G. Piztea?
Y. Anima gorputzaiquin yuntatza
G. Il eta ondoan nora goan cen?
Y. Linbora yauna.
G. Zertara?
Y. An veira zauden anima Sainduen libratzera.

36. Letra zati bat falta da.

37. Ez da argi ikusten zer jartzen duen.

- G. Zer paraje zen au?
- Y. An artaraño Yangoicoaren gracion il eta zorric valinetar...ten purgatorioan pagatu eta orai cerura gaten diren bezela guaten diren paragia.
- G. Nola yautsi cen?
- Y. Yautsi cen Cristoren anima Saindua Yangoicotasunarequin juntatua.
- G. Gerostican gorputza gelditu zen gurucean Yangoicotasunic gave?
- Y. Ez yauna Yangoitasunarequin veraiquin yuntacea.
- G. Nola piztu edo resucitatu zen irugarren egunean.
- Y. Len... rengan partitu ziren arima eta³⁸
- G. Nola igan zen ceruetara.
- Y. Ver...iño lagunic gabe
- G. Jesus non dago?
- Y. Aite eternoaren escuñeco aldean
- G. Aitac badu pri³⁹ escuric?
- Y. Zer edozein an dagola yarriric Aitaren escuñeco aldean
- G. Jesucristo Yangoicoa den partetic vaduela aitac adina gloria guizona den partetic ez ainberce⁴⁰<11. orr>
- Y. Ceruan diren Bienaventuratu guciec vaño gueiago
- G. Yesu Cristoc vadu Aitaric edo Amaric?
- Y. Bai Yauna
- G. Nor ditu?
- Y. Yesu Cristo Yangoicoa (sic) den partetic vaice Aita zeinetan Aitaric eztu.
- G. San Jose etcen vada izan Yesu Cristoren aita?
- Y. Ez Yesusec Aita ordecoa.
- G. Noiz torrico da ilen eta vicien yuzcatzera?
- Y. Azquen Yuicioco egunean
- G. Eta orduan ilec piztu bear dute?
- Y. Bai Yauna veren anima eta gorputzaiquin
- G. Espiritu Saindua vaitan zer sinesten duzu?
- Y. Trinidad Santisimoco irugarren presuna deitzen dela Espiritu saindua eta in dela Yangoico nola Aita eta Semea.
- G. Eliza ama Saindu catolicoan zer sinesten duzu?
- Y. Badela Eliza egiazco bat gure Yangoiac Bautzen eta adoratcen duena.
- G. Nor da Eliza?
- Y. Ba Cristabau fiel catolico gucien yunta unibocoa⁴¹ Edo Batasuna
- G. Zenbat eliza dire?
- Y. Bat Yauna

38. Jada ez da ikusten lerro guztia.

39. Zerbait falta da.

40. Orrialde bukaera ez da ikusten.

41. Ez da argi ikusten.

- G. Zergatic ezta bat vaicic?
Y. Zergatic ezten yangoico bat vaicic fede Saindu vat vaicic Eliza onen... norda?
Y. Ceruan eta Lurrean Yesucristoren vuru nausia
G. Eta Lurrian?
Y. Aren vicario ordecoa aita saindu erromacoa ceñi vaigaude gucioc obligaturic ari obediencia ecartcera. <12 orr>
G. Sainduain Comunioan cer sinesten duzu?
Y. Critau fiel catolico gucioc vadugula parte elizama Saindu⁴² iten diren on gucietan Gorputz vaten miembro viciac gu⁴³ ren vezala zein baita eliza eta vecatu mortalean vaugaude ez gu⁴⁴erentan eta ez verceetan ere.
G. Becatuen barcamendian cer sinesten duzu?
Y. Elizan badiela erremedioac vecatuen barcatceco
G. Zer erremedio dire oriec?
Y. Sacramentuac eta Sacramentuetan principalqui Bautismoa eta penitencia.
G. Zer erremedio dire oriec?
Y. Ceruan izan Lurrean velar, Itsasoan legar ainverce vecatu vatec val (bukatu gabe) ere acto contriciozco bat eguiteiquin barcatzen zaizcio guciac.
G. Aragiaren piztean cer sinesten duzu?
Y. Orai tugun anima eta Gorputz veraiquin piztu edo resucitatzat veardugula azquen yucioco egunean eta yuntatu Yosepetaco zelai[an]
G. Cer adinecoac?
Y. Oguei eta amairu urtecoac Yesu Cristoren quideac
G. Seculaco vicitzean zer sinesten duzu?
Y. Biziza unen ondoan izannen (sic) dela Seculaco Cerua edo Seculaco infernua.
G. Amen azqueneco itzac zer erranaidu?
Y. Ala sinesten ditut emen erran tugun itzoc guciac.
G. Credo eta articulo fedezcoez landara sinesten duzu ver⁴⁵ gauzatic?
Y. Bai yauna escritura sagraduan dauden guciac eta yangoicoac vere elizari errevelatu dion gucia.
G. Zer gauza dire oriec?
Y. Ori eztatuzala neri galde ignorante baináis Eliza ama Sain (zenbait falta da) vaditu oriec iñardesten yaquinen duten doctoreac.
G. Ungui diozu doctore dagola eta ez zure fede Sainduaz nor gueyago ematea zuc asqui duzu Articulo fedezcoac credo asi <13. orr>
G. Norc erran zuen Aitagurea?
Y. Yesu cristoc vere agoz apostoluec escaturic
G. Zertaco?

42. Zerbait falta da.

43. Orrialde bukaera eta zerbait falta da.

44. *U* hau gainean idatzia agertzen da.

45. Orrialde bukaera eta zenbait falta da.

- Y. Guri otoiz iten eracusteco
 G. Zer da otoiz itea?
 Y. Yangoicoari viotza alchatzea eta escatzea favoreac eta mercedead
 G. Aitagurea erraten duzunean norequin mintzazen zara?
 Y. Gure yangoico jaunarequin
 G. Non dago Yangoico Gure yauna?
 Y. Lecu eta gauza gucietan principalqui ceruan eta aldareco Sacramentu sainduan.
 G. Badago suan?
 Y. Bai yaune.
 G. Urean?
 Y. Bai Yauna
 G. Logian? Y. Bai yauna
 G. Erretcen, bustitcen ziquincen da?
 Y. Ez yauna.
 G. Zergatic?
 Y. Zergatic den espiritu puru utsa ecin padeci dezaquena
 G. Yesu Cristo non dago?
 Y. Yangoicoa den partetic lecu eta gauza gucietan principalqui Yangoicoa den partetic Sainduan guizonaren den partetic vi lecutan ceruan eta aldareco Sacramentu sainduan.
 G. Nola dago Aldareco Sacramentu Sainduan?
 Y. Milagrosoqui vatere lecuic arcen eztuela eta vurua gordetcen duela?
 G. Cerua Nola dago?
 Y. Guc emen vezala lecuia artcen duela eta vere vurua agueren duela
 G. Zer dago ostian? <14 orr>
 Sacerdote Yaunac consagracionzco itz Sainduac erran baño le⁴⁶ ogui pisca bat yauna Sacerdote Yaunac Consagracionzco itz sainduac erran ezquero Yesu Cristoren Gorputz preciosa.
 G. Ilic edo viciric dago?
 Y. Biciric yauna.
 G. An dago yesu Cristoren odola?
 Y. Zergatic ecin vaitagoque Goputz viciric odol viciric eta animaric⁴⁷
 G. Andago yesu Cristoren Yangoicotasuna?
 Y. Bai Yauna
 G. Guizontasuna?
 Y. Bai Yauna
 G. Aita Eternoa?
 Y. Bai Yauna
 G. Espiritu saindua?

46. Orrialde bukaera eta zerbait falta da.

47. Orrialde bukaera eta zerbait falta da.

Y. Bai Yauna

G. Badago iñor herc verceric?

Y. Ez Yauna Aita, eta semea eta Espiritu Sainduko eta Yesucrí...vere anima eta Gorputzaiquin eztago nior here verceric.

G. Zer dago calizean?

Y. Sacerdote yaunac Consagraciónco itz Sainduac erran vaño ardo shorta bat eta ur tanta bat yauna, Sacerdote yaunac graciónco itz Sainduac erranez gueros yesu Cristoren odol preci⁴⁸

G. Ilic edo viziric dago

Y. Biziric dago

G. Zergatic?

Y. Zergatic ecin vai dagoque Gorputz viciric odol viciric eta anima⁴⁹ eta ere odol viciric eta animaic gave, <15 orr>

G. Badago Yesu Cristoren yangoicotasuna.

Y. Bai Yauna

G. Guizontasuna

Y. Bai yauna

G. Eta semea?

Y. Bai Yauna

G. Espiritu Saindua?

Y. Bai Yauna

G. Maria santisima?

Y. Ez yauna

G. San Josef?

V. Ez Yauna

G. Ostian edo Calizan dago yesu Cristo gueyago?

Y. Biotan verdin yauna

G. Zenbat ostia consagratu diren ainberce cristo vadire?

Y. Ez Yauna bat vacarra.

G. Ostia bat puscacden denean puscacden da Yesu Cristoren Gorputza?

G. Ez yauna ain osoric guelditzen da parteric ttipinean Nola audienean eta consagraciónco itzac erranez gueros guelditcen da ostiartan oguiric edo calizartan ardoric?

Y. Ez Yauna

G. Zer eguiten dire vada ogui eta ardoura?

Y. Oguia viurcen da Yesu Cristoren gorputzean eta ardo odolean.

G. Zer dire vada an icusten direnec?

Y. Oguiaren eta ardoaren accidenteac

G. Zein da oracionetan oberena?

Y. **Aita gurea yauna**

48. Zerbait falta da.

49. Zerbait falta da.

- G. Zergatic?
- Y. Zergatic erran vaitzuen cristoc vere agoz apostoluec escaturic.
- G. Zergatic gueyago?
- Y. Zergatic vaititu zazpi peticiones Caridade osoan fundatuac.
- G. Zein da Lenbicoa? <16. orr>
- Y. Santifica bedi zure izena
- G. Zer escatcen duzu peticiones ortan?
- Y. Yangoicoaren izen Saindua izan dadiela zautu alavatu eta onra [mundu]guciar
- G. Zein da Bigarrena?
- Y. Betor guregana zure errainua
- G. Zer escatzen duzu peticione ortan?
- Y. Gure yangoico vici dayela mundu untan gure animetan graziaz eta vercean digula vere gloria.
- G. Zeinda Yugarrena?
- Y. Eguin vedi zure borondatea Ceruan vezala Lurrean ere.
- G. Zer escatcen duzu peticione ortan?
- Y. Eguin dezagula Yangoicoaren borondatea Lurrean gaudenoc ceruan Bienabenturatuec iten duten vezala.
- G. Zein da Laugarrena?
- Y. Eman diezaguzu eguneco gloria.
- G. Zer ematen duzu peticione ortan?
- Y. Gure Yangoicoac man dezagula leenic animaco eta güero Gorpu⁵⁰ sustentun ani-maenzat ispirituala eta Sacramentuaiñ medioz graciaz.
- G. Zein da Borzgarrena?
- Y. Barca diezaguzu guri gueren zorrac guc zor gaituztenec varcatu deztegun (sic) vezala.
- Y. Zer escatzen duzu peticione ortan?
- G. Gure yangoicoac barca dietzagula zuri gueren vecatuac gu agraviatu gaizqui in dacutenei guc barcatcen daveztegun bezala.
- Y. Zein da seigarrena?
- Y. Ez gaitxatzula utzi erorcen tentacioan.
- G. Zer escatcen duzu peticione ortan?
- Y. Gure yangoicoac ezcaitzala utzi tentacio eta peligroetan erorcera eta ere consenti-zera. Zergatic Demonioac vecatua in eta vecatu...tan veratu nai gintuen.
- G. Zein da zazpigarrena? <17 orr>
- Y. Baicic libra gaitzazu gaitzetic:
- G. Zer escatzen duzu peticione ortan?
- Y. Yangoicoac libra gaitzala leenic animaco eta güero gorputzeco gaitz eta peligro gaisto gucietaric.
- G. Zertaco erraten duzu vada Aita gurea ceruetan zaudena?

50. Zerbait falta da.

Y. Yangoicoari viotza alhace eta umiltasun eta confianzarequin escatzeco
G. Zergatic erraten duzu Aita gurea eta eztuzu erraten 'Aita Nerea'?
Y. Zergatic den gucion guratsoa eta escatu veiar dugu aurride leialac vezala
G. Zer erraidu (sic) amen azqueneco itz arc?
Y. Ala izan daitecila emen erran tugun itz oc guciac.
G. Zer oracion erraten diozu ama virginari principialqui?

Ave Maria eta Salvea

G. Ave mariac cenbat parte ditu?
Y. Iru Yauna.
G. Lenbicoico partea noiz erran zuen?
Y. Ainguiru san Grabielec
G. Noiz erran zuen?
Y. Torri cenean ama virginaren salutatzera Trinitade santissimoco vigarren persuna
ain baitan in bear zuela Guizon verri onaquin.
G. Nondic asita erran zuen?
Y. Ave maria graziaz vetea yauna da zurequin.
G. Bigarren partea norc erran zuen?
Y. Santa Isabelec
G. Noiz erran zuen?
Y. Maria Santisima guan cenean Santa isabelen visitacera Juderea.
G. Nondic asita erran zuen?
Y. Bedecatua zu zara andre gucien artean bedecatuada zure savela[ren] fruitua.
Y. Santa Maria
G. Aita ama Sanduac conpondu zuen Salvea? <18 orr>
Y. Eliza ama Sainduac dauca oracionetaco artua
G. Zertaco?
Y. Virginia adre(sic) mariari escatceco favoreac eta mercedead.
G. Erraten avemaria edo Salvea norequin mintzatzen zara?
Y. Virginia andre mariaquin.
G. Nor da virgina andre maria?
Y. Da andre eder bat graziaz eta virtutez vetea da yangoicoaren ama dago Ceruan.
G. Aldaretan daude (sic) nor dire vada?
Y. Aren imagen edo iduricantza bat zuec.
G. Zertaco daude or?
Y. Oric icusita Ceruan daudenez oroizeco zeren diren aren amagan edo⁵¹ canza ba-
tzuc agur eta reverencia eguiteco.
G. Orobat eguin veadugu verce Sainduen imaginei ere
G. Otoiz in viar davegu anguiru eta Sainduei?

51. Zerbait falta da.

- Y. Bai Yauna gueren vitarteco lagunza leyalei vezala.
 G. Zer gauza dire aingueruac?
 Y. Dire espiritu Bienaventuratu vatzuc ceruan daudenez Yangoicoa eta gozatcen⁵²
 G. Zertaco criatu zituen Jangoicoac?
 Y. Beraren eternidade gucian alavatu eta Bedeicatceco.
 G. Zer geyago?
 Y. Beraren ministro leyalac eliza gobernatceco eta Guizona zautzeco.
 G. Beraz vaduzu angiru guardiaco?
 Y. Bai Yauna nic nerea badut eta vacotchac vereea badu. Bada iduqui diozu devocio aundi bat eta comendatu egunero.⁵³
 G. Zein da Yangoicoaren lenbico manamendua?
 Y. Yangoicoa maitazea gauca gucien gañetic.
 G. Norc maitacen du Yangoicoa?
 Y. Aren legeco manamendu Sainduac guardatcen dituenac
 G. Cer da aren maitazea gauza gucien gañetic? <19 orr.>
 Y. Naiago izatea gauza guciac galdu Yangoicoa ofenditu baño?
 G. Zertara geyago obligatzen gaitu manamendu unec?
 Y. Yangoicoa vacarric adoratzera leenic animaco eta güero Gorputzeco reverencia aundiarequin aren vaitan dugula sinestea eta esperanza fede vici vatequin.
 G. Norc iten du vecatu manamendu unen contra?
 Y. Ydolo eta Yangoico falsoac adoratzen dituenac eta etan sinesmendua arcen duenac.
 G. Norc queyago?
 Y. Agueruetan, echicerietan eta gauza supersiticiozcoetan sinesmendua arcen duenac.
 G. Zein da Bigarrena?
 Y. Banoan Yuramentuic ez itia.
 G. Norc iten du vecatu manamendu unen contra?
 Y. Eguia, gave justicia gave premio edo necesidade gave yuramentu iten duenac.
 G. Eta vecatu da Criatura gatic vanoan yuramentu eguitea?
 Y. Bai Yauna zergatic yuramentu iten zaion criaturetan criadoreati.
 G. Cer erremedio da vanoan yuramenturic ez iteco?
 Y. Ez edo bai erratia usatcea cristoc eramaten dacuten vezala.
 G. Zein da Yrugarrena?
 Y. Ygandeac eta berce bestac guardatcea.
 G. Norc bestac guardatcen ditu?
 Y. Meza osoa entzuten duenac eta eta premio edo necesidade gave vearric iten eztuenac?
 G. Zer da meza?
 Y. Da sacrificio edo ofrenda bat iten diona Yesu Cristoc vere Aita Eternoari.
 G. Zein da Laugarrena?

52. Zerbait falta da.

53. Honen azpian marra luze bat dator, goiko zatia eta behekoa zatituz.

- Y. Gueren guratsoac edo edo zarragoacoac respetacea <20 orr.>
G. Norc errespetacen ditu guratsoac?
Y. Itzez, eta obraz obedecitcen dituenac reverenciatcen⁵⁴ nac eta necesidade dute-
nean socorritcen dituenac.
G. Nor geyago comprenditcen aire guratsoen izan orretan?
Y. Aundienac edo gueyago direnac adinean divinidadean eta gob⁵⁵.
G. Zein da Borzgarrena?
Y. Nior ez iltzea.
G. Zer manatcen du manamendu untan?
Y. Yzan gaizila garviac castoac pensamentutan, itzetan eta obretan?
G. Zein da zazpigarrena?
Y. Ez ebastea?
G. Zer manatcen da mamendu (sic) untan?
Y. Ez equencea ez iduquitcea eta ez naizatea verceren gauzaric yu⁵⁶ ren borondatean
ren contra.
G. Zein da Zorzigarrena?
Y. Falso testimonio gaistoric ez allchatxea ez geyago gezurric erratea.
G. Zer manatcen da manamendu untan?
Y. Juicio gaistoric Lagun projimoaz ez itea ez erratea eta ez ⁵⁷ditcea aren faltaric?
G. Norc Austen du manamendu au?
Y. Arrazoñaren contra yuzcatcen dituenac eta guezurra erraten duenac.
G. Zer devecatcen dire Bederatci edo amargarren manamenduan?
Y. Desonestidadearen eta vercen aciendaren deseyuz.<21 orr.>
G. Zer gauza dire **Sacramenduac**?
Y. Dire canpoticaco señale vatzuec Yesu Cristo gure yauneac heredatuac?⁵⁸ eta ema-
teco guri vere gracia eta virtutea.
G. Zer da gracia?
Y. Da vicia eta izate divino bat ceñec iten vaicaitu Yangoicoaren ume eta ceruco credo
G. Zer virtute maten tuzte Sacramentuac graciarequin vatean?
Y. Principalqui iru **Teologalac eta divinuac**.
G. Zein dire?
Y. Fedea, Esperanza, eta Caridadea.
G. Zer da Fedeco virtutea?
Y. Da virtute Yangoicozco bat ceñequin sinesten ditugun icusi gaveco Zergatic gure
Yangoicoac Elizari ala errevelatu dion eta Eliza ama sainduac ala eracusten dacun.
G. Zer da esperanzaco virtutea?

54. Zerbait falta da.

55. Zerbait falta da.

56. Zerbait falta da.

57. Zerbait falta da.

58. Ez da argi ikusten.

Y. Da virtute Yangoicozco bat ceñequin Esperatcen ditugun ceruco gloria eta ondatsun betico bat gueren obra onequin yangoicoaren gracia edo lagunza dela medio.

G. Cer da caridadeco virtutea?

Y. Da virtute Yangoicozco vat ceñequin maitatcen dugun gure yangoicoa gauza gucien gañetic eta lagun projimoac gueren vuruac vezala iten yugula guc egun ec gurequin itea naiguinuquen vezala.

G. **Zertaco da Batayo sacramentua?**

Y. Quenceco vecatu originala eta vatayatcen denaren vaitan aurquicen den vercedezein-

G. Zer da vecatu originala?

Y. Da vecatu ura ceñequin sorteen gucioc credaturic gure... co guratso Adan eta evaren ganic

G. Zertaco da confirmacioco Sacramentua?

Y. Confirmaceco eta aseguratceco Batayo Sainduan errecibitu ginuen fedean. <22 orr>

G. Zertaco da penitenciaco Sacramentua?

Y. Batayatuz güero intugun vecatuen barcatceco.

G. Zer vecatu dire oriec?

Y. Vecatu inmortalac vai venialac ere.

G. Zer da vecatu mortala?

Y. Da erratea, eguita, pesatcea edo nai izatea gauza aundi vat Yangoicoaren Legue Sainduaren contra.

G. Zergatic deitzen da mortala?

Y. Zergatic iltzen vaitu iten duenaren anima.

G. Zenbat parte ditu penitenciac vecatu mortalian quenceco?

Y. Iru Yauna.

G. Zein dire?

Y. Biotzeco contricioa agozco confesioa eta obrazco satisfacioa.

G. Eta necesario da bat vecatu mortalean erorcen denean ver⁵⁹ confesatcea vecatua-
ren barcatceco?

Y. Ungui litzateque vaño eta necesario?

G. Zer in bear du vada?

Y. Yduqui veiar du damu eta urriquimendu aundi bat vere vician Yangoicoen ofendituaz eta confesatu Eliza ama Saindua manatcen duenean.

G. Zer da vecatu veniala?

Y. Da erratea, eguita, pensatcea edo nai izatea gauza ttipi bat Yangoicoaren Legue sainduaren contra edo vecatu mortalen disposione bat.,

G. Zergatic deitcen da veniala?

Y. Zergatic guizon artan errezqui erortzen den eta errezqui varcatcen zaion.

G. **Zenbat gauzaz barcatcen zayo?**

59. Zerbait falta da.

Y. Bederatciez Yauna.

G. Zein dire?

Lenbicoia meza enzuteaz.

Bigarrena⁶⁰ comecatzeaz. <23 orr>

Irugarrena confesio generala errateaz

Laugarrena obispoain bendizioa arceaz

Borzgarrena ur bedecatua arceaz

Seigarrena ogui bedecatua arceaz

Zazpigarrena Aita gurea errateaz

Zorcigarrena predicua aditzeaz

Bederatcigarrena bularretaco Golpeaiquin Yangoicoari barcamendua escatzeaz.

G. Zertaco da comunioco Sacramendu Saindua?

Y. Dignoqui edo veiar duen Disposicionearequin errecibitzen dugularic animaren sustentateco eta gradiaren verratceco.

G. Zer errecibitzen du Comunio Sainduan?

Y. Yesu Cristo gure Yauna osoric eta viciric ceruan dugun ura vera cein eguiatzqui eta errealqui vaitago aldareco Sacramentu sainduan.

G. Yauna dignoqui errecibiteco cer disposicione veiar dire?

Y. Bida yauna vat animain partetic eta vercea gourputzain partetic.

G. Animain partetic cer disposiciones veiar du?

Y. Ungui confesaturic eta yangoicoaren gracion yarriric (zerbait falta da) edo nor errecibitzen duen daquielaric

G. Gorputzain partetic cer disposiciones veiar da?

Y. Mezpera gau erdi ezquero varu naturalean egotea gure yaun soberanoai errecibitu artaño.

G. Zertaco da oiladuraco Sacramentua?

Y. Yru gauzataco Yauna.

G. Zein dire?

Lenbicoia vicitza pasatceco vecatuen mancha eta erreto gucien quenceco.

Bigarrena animari indarra mateco etsaien contra.

Irugarrena Gorputzari Osasuna conbeni vazayo <24 orr>

G. Zertaco da ordenaco Sacramentua?

Y. Elizaco Ministro dignoen consagrateco eta ordenatceco zein batiere Sacerdoteac Diaconoac, subdiaconoac eta berce gañer⁶¹

G. Zertaco da Matrimonioco Sacramendua?

Y. Ezconceco eta ezconduei amateco gracia vici daitezain baquean eta amorian eta izaten vadute umeric az dezaten Ceruraco.⁶²

60. Orban oso iluna.

61. Zerbait falta da.

62. Honen azpian marra luze bat dago.

Becatu capitalac dire zazpi

Lenbicoa sobervia
Bigarrena avaricia
Irugarrena lujuria
Laugarrena ira
Borzgarrena Gula
Seigarrena Embidia
Zazpigarrena Pereza

G. Zergatic deitzen dire Capitalac edo Buruzagiak zazpi comu⁶³qui mortalac deitzen diren oc?

Y. Deitzen dire capitalac edo Buruzagiak cergatic vaitire ...etarie sorcen diren verce vicioen iturri vuruac edo erroac veza⁶⁴ eta mortalac deitzen ez dagote eder cergatic anitz al⁶⁵ ezbaitire venialac vaicic.

G. Noiz dire mortalac?

Y. Yangoicoaren eta lagun projimoaren Caridadearen con[tra] direnean.

G. Noiz den caridadearen contra?

Y. Noiz ere equengatic austen vaita yangoicoaren edo Eliza ama Sainduaren manamen cenbait gauza gravean.

G. Zer da Soberbia?

Y. Da verceac vaño gueyago izateco deseyu desordenatu bat.

G. Zer da avaricia?

Y. Da aziendaren edo ondasun deseyu desordenatu bat.<25 orr>

G. Zer da Lujuria?

Y. Da aragiaren placer loy eta gusto ciquinen deseyu desordenatu bat.

G. Zer da ira?

Y. Da asperceco eta mendecatceco deseyu desordenatu bat.

G. Zer da gula?

Y. Da yateco eta edateco deseyu desordenatu bat.

G. Zer da Embidia?

Y. Da verceren onaz atsecavea izatea.

G. Zer da Pereza?

Y. Da obra orretaco gogo ita izatea.

63. Zerbait falta da.

64. Zerbait falta da.

65. Lerro bukaera eta zerbait falta da.

Zazpi vicio oquen contra vadire zazpi virtute.

Soverviareen contra Humildadea
Avariariaren contra Liberatasuna
Luguriaren contra Castidadea
Iraren contra Paciencia
Gularen contra Templanza
Embidiaren contra Caridadea
Perezaren contra diligencia.

Virtute cardinalac lau
Lembicicoa Prudencia
Bigarrena Yustia (sic)
Irugarrena Fortalez
Laugarrena Templanza

Gorputceco Sentidoac dire Borz
Lembicicoa Beguiez icustea
Bigarrena Bearriez aditcea
Irugarrena agoz gustacea.<26 orr>
Laugarrena sudurrez usmatcea.
Borzgarrena escus iquitcea
G. Zertaco man zazcun Sentidoac eta verce gañeraco miembroc?
Y. ⁶⁶uciez gauza gucietan vera zervitzaceco.

Animaco potencias dire Yru

Memoria
Adimentua
Eta Borondatea
G. Zertaco man zazcun Yangoicoac memoria?
Y. Gure Yangoicoa oroizeco eta arc in dazcun unguiez.
G. Zertaco man zacien Borondatea?
Y. Gure Yangoicoa maitatceco Zeren guziz ona den eta lagun projimoa arengatic.

Espiritu Sainduaren doayac dire zazpi.

Lembicicoa yaquintasunaren doaya.
Bigarrena Entendimentuaren doaya.
Yrugarrena conselluaren doaya.
Laugarrena cienciaren doaya.
Borzgarrena Fortalezaren doaya.
Seigarrena piedadearen doaya.
Zazpigarrena Yangoicoaren beldurtasunain Doaya.

66. Zerbait falta da.

Espiritu Sainduaren Fruituac dire Amabi

Lembicicoa Caridadea.
Bigarrena Baquea.
Yrugarrena Longanimidadea.(sic)
Laugarrena Benignidadea. <27 orr>
Borzgarrena Fedea.
Seigarrena continencia.
Zazpigarrena Gozo Espirituala.
Zorzigarrena Paciencia
Bederatcigarrena ontasuna.
Amargarrena Mansotasuna
Amecagarrena Modestia
Amavigarrena Castidadea.

Bienaventuranzac dire zorzi

Bienaventuranzac Espirituz pobre direnac Zergatic equena izanen da ceruco Erreñua.
Bienaventuranzac Mansoac Zergatic ec gozatuco dute lurra.
Bienaventuratuac nigar iten dutenac cergatic ec izanen dire consolatuac.
Bienaventuratuac Misericordiosoac zergatic ec erdietsico dute misericordia.
Bienaventuratuac Yusticia gose eta igarri direnac cergatic ec izanen dire asesiatuac
Bienaventuratuac viotz garviac cergatic ec cusico dute Yangoicoa.
Bieaventuratuac Baquetierrac cergatic ec izanen dire deituac Yangoicoaren Semeac.
Bienaventuratuac Yusticiaren persecucioneac padecitcen tuztenac zergatic equena izanen da ceruco Erreñua.

G. Zer erran tugu orai?

Y. Zorzi Bienaventuranzac.

G. Zer gauza dire Bienaventuranza oc?

Y. Virtutetan dire obraric oberenac eta Espiritu Sainduaren doaya. <28 orr>

G. Nor dire espírituz pobre direnac?

G. Deshoreric eta averastasunic nai eztutenac, moderatuac izanic ere.

G. Nor dire mansoac?

Y. Yraric eta aren movimenturic eztutenac

G. Nola gozatuco dute lurra?

Y. Beren Buruan Yaun eta Yave vezala

G. Nor dire nigar iten dutenac?

Y. Placerac uzten dituztenac ttipiac izanic ere.

G. Nor dire Yusticia gose eta egarri direnac?

Y. Gucietan veren eguinvidea egiten dutenac.

Y. guiz⁶⁷ uricalzen direnac oraño estrañoquin ere.

67. Ez da argi ikusten zer den.

G. Nor dire viotz garviac?
Y. Beren pasionetan osoqui mortificatuac direnac.
G. Nor dire baquetiarrac?
Y. Baquearen ordenazaleac vere eta verceren arte[an].
Y. Gucietan firme daudenac perseguituac izanic ere.
G. Oc cergatic deitzen dire Bienaventuranzac?
Y. Cergatic otan vaitago mundu untaco eta berceco esperanza.
Semea gucioc arara eraman gaitzala
Amen <29 orr>

G. Zembat disposicione vear dire confesio on baten eguiteco?

Y. Borz Yauna.
G. Zein dire?
Y. Lembicicoa Conciencia esaminatcea.
 Bigarrena dolorea formatcea
 Yrugarrena proposito firme bat vere viotzean arcea ez berriz vecaturic iteco.
 Laugarrena confesionearen oñetara guanta vecatuac osoqui confesatcea.
 Borzgarrena confesoreac maten duen Perintencia cumplizeco deseyu izatea.
G. Zer da conciencia esaminatcea?
Y. Da inta dauzcan confesatceco memoriara carcea confesatceco guciac.
G. Nondic carri vear ditu vecatuac memoriara?
Y. Yangoico aren legueco manamendu Sainduetaic Elizaco Bortztaic, obra misericordiosoetaic, Becatu Capitaletaic, Consideratce duellaric cein manamenduin contra in duen vecatu eta cembat aldiz veiratcen diolaric vere estadu, oficio, edo empleguari unela vear du atera contua garvi vecatu in duela pensamentuz itzez eta obraz.
G. Zembat dembora vear du vecatuac memoriara cartceco?
Ezta yauna Dembora señalaturic bat verac vear du artu premio edo necesidad idurritcen zaion dembora ura eta iñala eguin munduco iteco aundi inen luquena ezta vada Yauna iteco aundiagoic Nola den ongui confesatu eta Yangoicoaren gracian yartcea vaño.
G. Zer da dolorea?
Y. Da damu eta urriquimendu aundi bat vere vere viotceco Yangoicoa ofendituaz.
<30 orr>
G. Zenbat modutara da Dolorea?
Y. Biotara, Yauna
G. Zein dire?
Y. Contricioa eta Atricioa Yauna
G. Zer gauza da Contricioco dolorea?
Y. Da vere vecatuaquin gure yangoicoa ofendituaz da eta urriquimendu aundi bat vere viotcean artcea yangoicoain ondasuna gatic edo cergatic den gure Yangoicoa ona Saindua eta maitacea merce duena proposituaquin confesatceco eta ez verriz vecaturic iteco.
G. Yn zazu contricioco dolore bat?
Y. Damu dut Yauna zu ofendituaz zeren zaren ain ona.

G. Au zertaic arzen du batec?

Y. Yangoicoari dion amoriotic.

G. Zer gauza da atricioco dolorea?

Y. Da verze vecatuiquin gure Yangoicoa afendituaz damu urriquimendu aundi bat vere viotzean arcea vecatuin itsustasunagatic edo cergatic vecatua iten duen alde⁶⁸. Gal-tzen duen cerua eta iravazi proposituaiquin confesaceco eta ez berris vecatuic iteco.

G. In zazu atricioco dolore bat?

Y. Damu dut Yauna viotz gucitic zu ofendituaz zergatic ...vecatuac direla bota bai-ninduzu infernuetara.

G. Zu zetaic arcen du batec?

Y. Yangoicoaren Yusticiaren veldurtasunetic.

G. Dolore oitan vietan zein da oberena?

Y. Contricio Yauna Anitzez ere ohea da Atricioa vaño.

G. Zergatic?

Y. Zergatic contricioco dolorea iten duenari barcatcen vecatuac confesatu vaño atricioco dolorea iten duenari etzaizco barcatcen confesioco Sacramantuaiquin baicic.<31 orr>

G. In zagun vada contu vi presuna valoaci confesatcera ba⁶⁹ in balezaque contricioco dolorea eta verceac atricioa eta viac ilcen balira confesatu vaño len zer gertatuco liza-que?

Y. Contricioco dolorea in duenera Salvatico lizaque vaño atricioa eguin duenera condenatu.

G. Becatore bat aurquitcen vada vecatu mortalean ilceco peligroan confesoreric ez salva daiteque?

Y. Bai Yauna.

G. Nola salva daiteque?

Y. Iten duelatic acto contriciozco bat confesatcezo proposituaiquin.

G. Zer da propositua?

Y. Da determinacio edo borondate firme bat vere viotzean arcea ez berriz vecatuic iteco eta apartaceco vecatu iteco ocasio eta peligro gaisto gucietaric.

G. Becatu iteco ocasio eta peligröetaric apartacen eztena aparta daitequelaic izanen du propositu eguiazcoa?

Y. Ez Yauna baiciqan falsoa.

G. Zein da Laugarrena?

Y. Confesorearen oñetara guanta vecatuac direnac diren bezala confesatcea, ciertoac ciertoac vezala, dudazcoac dudazcoac vecala, pensamentuzcoac pensamentuzcoac vecala, Itzezcoac Itzezcoac vezala obrazcoac obrazcoac vezala, deseyuzcoac deseyuzcoac vezala veren circunstancia guciequin conciencia esaminatu zuenean atera zuen guisa artan verean.

68. Zerbait falta da.

69. Zatitxo bat falta da.

- G. Vecatu venialac vadu confesatceco obligacioneric?
Y. Obeago da confesatcea vaña eztu obligacioneric.
G. Becatu mortal bat anzten vazayo confesatceco izanen da confesio eguiazco?
Y. Confesio ona izanen da ez bazayo anzten conciencia edo animatze faltaz. <32 orr>
G. Gelditzen zayo obligacioneri confesatceco vecatu me⁷⁰ Anzten zayon artaz
Y. Bai. Yauna oroitzen vada oroitu eta lembici confesatcen den aldian.
G. Becatu bat barcatcen da vercea barcatu gave.
Y. Ez Yauna guciac edo batrez.
G. Batec gelditen vadu vecatu mortal bat confesaceco beldurrez edo alquez Salva daiteque verce cenbait penitencia Eguinoa.
Y. Ecin salva daiteque eguin balezaque ceruan diren Saindu eta Santa guciac in-
tuzten penitencia baño geyago inic ere.
G. Becatore bat aurquitcen bada vecatu aundi eta itsusi batequin edo aunitcequin
vila diozque confesoreac erremedioa erromara guan gave.-
Y. edoecin confesorec vilatico dio erremedioa erromara guan gave.
Y. Acusa dezaque confesoreac Penitencia Ynquisicioan edo declara dezaque den ve-
catu ttipiena ere.
G. Ecin acusa dezaque vicie Solaic erreco valutare?
G. Beraz ezta escusaric vecatu mortala confesatu gave uzteco?
Y. Ez Yauna eta confesatcen eztuenac vere culpan condenatico da erremedioric
gave.
G. Zein da Borzgarrena?
Y. Lagatcea Penitenciac obra onaiquin vecatuagatic zor dena.
G. Zer entenditcen duzu zorren pagatu ortaz?
Y. Confesoreac maten duen penitencia admiticea cumpliceo intencionearequin.
G. Penitencia ez cumplicea cer vecatu da?
Y. Nolacoa den penitencia. <33 orr>
G. Aundia vada?
Y. Becatu mortala
G. Ttipia bada?
Y. Beniala⁷¹
Comecatzeracoan erran veiar da iru aldiz.
Yesu cristo nere Yauna enaiz ni digno zu nere echean edo animean sarceco baña
orrengatic errazu zure itz Saindua orrequin izanen da anima sendatua eta Salvatua.
Oi Yauna iru aldiz⁷²

70. Zerbait falta da.

71. Marra luze bat.

72. Marra luze bat zatituz.

Oracioneac

Aita gurea ceruetan zaudena, Santifica bedi zure izena. Betor guregana zure erre-inua, eguin vedi zure Borondatea ceruan vezala Lurrean ere, eman diezaguzu eguneco oguia eta barca dietcaguzu guri gueren zorrac guc zor gaituztenei barcatcen daveztegun vezala, ez gaitzazula utci errortcera (sic) tentacioan, vacie libra gaitzazu gaitzazu (sic) Gaitcetic Amen.

Avemaria graziaz vetea Yauna da zurequin bedeciatua zu zara andre gucien artean eta bedeciatua da zure sabeleco Fruitua Yesus.

Santa maria Yangoicoaren ama zuc otoitz in zazu gu vecatariengatic oray eta gure eta eriotceco Orduan amen Yesus.

Gloria, patri ed Filio ed spiritu santo Sicut erad im principio et nunc ed in secula seculorum. Amen <34>

Cretoa

Sinesten dut Yangoico aita podore gucia duenaren Ceruaren eta lurraren criatzalea vaitan eta Yesucristo aren seme vacar gure Yauna vaitan zein concebitu baitcen Espiritu Sainduaren obraz eta graziaz sortu cen virgina andre mariarenganic padecitu zuen poncio Pilatosen manoaren azpian, crucificatu zuten illa ta egorci zuten yatsi cen infernuetara andic irugarren egunean resucitatu cen ilen artetic igo cen Ceruetara an dago yarriric Yangoico Aita po[do] Re gucia denaren escuñeco aldean andic torrico da illen eta vicien Yuzcatzera. Sinesten dut Espiritu Saindua Saindua vaitan eliza ama Saindu catolicoan sainduain comunioan, vecatuain barcamenduan, ⁷³iaren piztean vizitza seculacoan. Amen.

Salvea

Yangoicoa Salva zaitzala erreguina misericordioso...ama vicitza eta eztitasuna gure esperanza agur zure deiez gaude evaren ume desterratuoc zuregana gaude suspiroz sentimentuz eta nigarrez nigarrezco valle unetan. Ea bada Señora gure abogada izuli ezaguzu guregana zure begui misericordiazco oriec desterru unen varruan, eracus diezaguzu Yesus zure saveleco Fruitu bedeciatua. ⁷⁴Oz vera o urriqimendue. O Maria veti virgina izazu gugatic Yangoicoaren ama Santa merci dezagun erdiastea Jesu Cristoren promesac Amen Jesus.

73. Zerbait falta da.

74. Bihotz? Hitzaren zati bat ez da ikusten.

Yangoicoaren Legueco manamendu Sainduac dire amar

Lenbicoa iruac Yangoicoaren ohoratceco eta verce Lagun Projimoaren Provechuco.

Lembicoa Yangoicoa maitazea gauza guzien gañe⁷⁵ <35>

Banoan Juramentuic ez itea..

⁷⁶Igandea eta verce bestac guarda⁷⁷.

⁷⁸Laugarrena gueren guratsoac eta Zagarracoac respetacea.

Borzgarrena nior ez ilcea.

Seigarrena Lujuriazco vecatuic ez itea.

Zazpigarrena ez ebastea.

Zorzigarrena falso testimonio gaistoric ez alchatzea eta ez guezurric erratea.

Bederatzigarrena lagun projimoaren sendiric edo emazteric ez deseyatzea.

Amargarrena verceren ondasunic ez deseatztea.

Amar manamendu Sainduco enteratzen (sic) dire bietan Yangoicoa maitazea eta zervitzazea gauza gucién gañetic (sic) eta lagun projimoa gueren vurua vezala.

Elizaco manamenduac dire borz

Lembicoa Ygandetan eta verce Bestetan veza.

Bigarrena urtean vein vedere Confesatua edo lin...erori valin valin⁷⁹ vadugu edo comecatu veiar dugu

Irugarrena Bazco garaicumacotan comecatcea edo lenago ...peligroric vadugu.

⁸⁰...rena eliza ama Sainduac manatcen gaituela

amarren primiciac osoqui pagatcea

Ac dire amalau⁸¹<36>

Bigarrena sinestea dela semea

Laugarrena sinestea dela espiritu Saindua

Borzgarrena sinestea dela criazalea

Seigarrena sinestea dela Salvatzalea

Zazpigarrena sinestea dela Glorificazalea

Jesu Cristoren Gizontasunari dauzanac (sic) dire oc.

Lembicoa sinestea Yesu Cristo gave Yauna gizon den vatean izan zela concebitua espiritu sainduaren obraz eta graciaz

75. Orrialde bukaeran eta bertzearen hasieran hitz pare bat falta dira.

76. Orrialde hasiera da eta zerbait falta da.

77. Zerbait falta da.

78. Hitz bat falta da orrialde hasiera delako.

79. Bi aldiz agertzen da 'valin'.

80. Hasieran zerbait falta da.

81. Orrialde baten beheko zati osoa falta da, bospasei lerro edo.

Bigarrena sinestea sortu eta virgina mariarengananic⁸² arte eta virgina sortu vaño len sorcean eta sortu vaño...sinestea padecitu zuela pasione eta eriotce vortiz saioatec agatic.

Sinestea yausi zela infernuetan eta andic otoiz ren veida zauden aita sainduaren anima⁸³... sinestea resucitatu cela ilen artetic irugarrena maitacea.

Yrugarrena sinestea igan cela ceruetan eta an dagola Yangoico aita podore guzia deunaren escuñeco aldean.

Zazpigarrena sinestea andic torri vear duela ilen eta⁸⁴ ...itera erran nai du oney main daicela seculaco cerc...ean.

Cituzten aren legeco manamendu Sainduac⁸⁵ infernua ceren zituzten mandatu virgina eta izazu.mereci dezagun erdiestea jesu..Amen Yesus.

Yangoicoaren Legueco manamendu Sainduac dire amar

Lenbico iruac Yangoicoaren ahoratceco eta verce (ez da argi ikusten) Lagun Proji-
moaren Provechuco.

Lenbicoa Yangoicoa maitazea gauza guzien gañe⁸⁶

82. Hitz batzuk ez dira ikusten, orban beltza.

83. Zerbait falta da.

84. Zerbait falta da.

85. ..tua dator idatzirik, baina lehenago zenbait falta da.

86. Orrialde bukaera da eta hau da azkenekoa.

